

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

3285

AGINDUA, 2015eko uztailaren 22koa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, zeinen bidez ezartzen baitira Paisaiarako Ekintza Planak prestatzeko oinarri arautzaileak eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalentzako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako diru-laguntzak emateko deialdia iragartzen.

2000ko urriaren 20an, Paisaiaren Europako Hitzarmena onartu zuen Europako Kontseiluak, eta, 2009ko uztailaren 21ean, hitzarmen horri atxikitzea erabaki zuen Eusko Jaurlaritzak. Atxikitze horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartu zituen bertan ezarritako edukiak, eta edukiok bere erantzukizun-eremura eramatera behartu zuen bere burua, lurraldearen ordenamendu-politiketan barne hartuz paisaia eta sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak abian ezarriz.

Paisaiaren Europako Hitzarmenaren hitzaurrean jasotzen den bezala, paisaiarena gai garrantzitsua da kultura, ingurumena, gizartea eta ekonomiaren arloetan, eta, gainera, Europako natur eta kultur ondarearen funtsezko osagai da, gizakien ongizatea eta europar identitatea bermatzeko mesedegarria. Halaber, bizi-kalitatearen funtsezko elementu gisa tratatzen du paisaia, bai hiriguneetan bai landa-guneetan, gune degradatuetan zein kalitatezkoetan eta gune bereziki ederretan zein ohikoetan.

Aipatu hitzarmenaren artikuluetan zehazten denez, haren helburuen artean dago, besteak beste, paisaiaren babesa sustatzea, hura kudeatzea eta ordenatzea, eta atxikitako alderdiak engaitzen dira hori bideratzeko politikak ezartzera berariazko sentsibilizazio-neurrien, prestakuntza- eta hezkuntza-neurrien, identifikazio- eta kalifikazio-neurrien bidez; neurriok definitzen dituzte paisaia-kalitatearen helburuak eta paisaia babesteko, kudeatzeko eta/edo ordenatzeko behar diren esku hartzeko tresnen aplikazio-neurriak.

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gaineko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren helburua da paisaia lurralde-ordenamenduan sartzea, paisaiaren dimentsioa esplizituago eginez lurraldean eragina duen elementu gisa, eta barne hartuz lurraldean eragina duten eta, euren eskumenak betez, Administrazio Publikoei gartzea dagokien ekintzen koordinazioa ziurtatzeko behar diren irizpideak eta prozedurak. Paisaiaren Ekintza Planak daude aipatu dekretuaren 3. artikuluan aipatzen diren paisaia babesteko, kudeatzeko eta ordenatzeko tresnen artean, eta, 6. artikuluan arabera, aldiz, kudeaketa-tresnak dira planok, eta paisaia babesteko, kudeatzeko eta antolatzeko jardueren arloan egin beharreko ekin-tzak zehazten dituzte, paisaiaren katalogoetan eta paisaiaren zehaztapenetan oinarrituta.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko 2015. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2014 Legean biltzen denez, lurraldea ordenatzeko programaren helburua da, besteak beste, paisaiaren balioa azpimarratzea, eta, hori lortzeko, aurrekontu partida bat aurreikusten du, hain zuzen ere, «Diru-laguntzak udalei paisaiaren arloan jarduerak egin ditzaten, Paisaiaren Europako Hitzarmenaren arabera» izenekoa. Diru-laguntza lerro honen bidez, jarraipena eman nahi zaio Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak 2014. urtean abian ezarri zuen diru-laguntza programari. Programa horren xedea da paisaia ezberdinen balioa azpimarratzea, biztanleriak paisaia horiez duen pertzepzioa zainduz neurri horiekin.

Azkenik, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuaren 9. artikulua b) letraren arabera, Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritzari dagokio paisaiaren antolamendua eta babesa sustatzea, lurralde-antolamenduaren tresnen alorrean.

Horregatik, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren iritziz, beharrezkoa da diru-laguntzen lerro bat ezartzea Paisaiaren Ekintza Planak idaztea sustatzeko, hain zuzen ere, paisaia babesteko, kudeatzeko eta ordenatzeko ekintzak zehaztea ahalbidetzen duten tresna gisa.

Ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu, aldatu eta horien funtzioak eta jardun-arloak finkatzeari buruzko abenduaren 15eko 20/2002 Dekretuak ematen didan eskumena baliatuz –dekretu hori Lehendakariaren martxoaren 1eko 8/2013 Dekretuaren bidez aldatu zen–; Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuaren bidez, eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan xedatutakoekin eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoekin eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren diru-laguntza eta laguntzei aplikatzeko gainontzeko xedapenekin bat etorritz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da Paisaiarako Ekintza Planak prestatzeko oinarri arautzaileak ezartzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako diru-laguntzak emateko+deialdia iragartzea. Lehiaketa-prozeduraren bidez emango dira diru-laguntzok.

2. artikulua.– Paisaiarako Ekintza Plan diruz lagungarrien betekizunak.

1.– Paisaiaren kudeaketan eta antolamenduan esku-hartzeko tresna gisa taxutzen dira Paisaiarako Ekintza Planak, eta zehaztutako lurralde-eremura mugatu behar dute euren jarduna.

2.– Paisaiarako Ekintza Planek eduki hauek izango dituzte, gutxienez:

a) Diagnostikoa. Paisaiaren eta paisaia-dinamiken analisia.

b) Lortu nahi diren paisaia-kalitatearen helburuak.

c) Ekintzak definitzea. Jarduketa-programa.

3.– Irizpide hauetakoren baten edo batzuen arabera esku hartu beharko dute Paisaiarako Ekintza Planek:

a) Narriadura edo degradazioagatik, batez ere hiri-landa trantsizioko hiriguneen periferietako lurraldeak, ibai ertzeetakoak edo industrialak (itsas- eta erreka-fatxadak, industria-eremuetako indargetzea...).

b) Gune hauen gaineko azpiegituren ondoriozko eraginagatik (komunikazio-bideak, telekomunikazioak, antenak, parke eolikoak...).

c) Paisaia arraro edo mehatxatu gisa duen berezitasun, hauskortasun edo adierazgarritasunagatik (hiri-silueta, mendien gailur-lerroa, begiratoki diskordanteak...).

d) Biztanleriarentzako ingurune oso ikusgarriak izateagatik (lurraldeko gune altuak, eszenaren atzeko planoak...).

e) Gune funtzionalaren nortasuna era erabakigarrian osatzeagatik (sinboloak, irudi adierazgarriak, berariazko identitate-elementuak...).

4.– Nolanahi ere, eragile publiko nahiz pribatuen eta eraginpeko herritarren parte-hartzea ziurtatu beharko da Paisaiaren Ekintza Planak lantzeko prozesuan.

3. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Diru-laguntza hauek eskuratu ahal izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta Arabako udalerrien kontzejuek, baina udal eta kontzeju bakoitzak eskaera bakarra aurkeztu ahal izango du, eta Paisaiaren Ekintza Plan bakarrari egin beharko diote erreferentzia; plan hori kanpoko ekipo batek prestatu ahal izango du. Arabako udalen eta kontzejuen kasuan, ezin izango da bera izan Paisaiaren Ekintza Planaren xedea; beraz, hori gertatuz gero, agindu honen 7.1 artikuluan xedatutako balorazioaren arabera puntuazio handiena lortzen duen proiektuari soilik emango zaio diru-laguntza.

2.– Erakunde eta enpresa onuradunei agindu honetan araututako laguntzak emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, beharrezkoa izango da amaituta egotea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta haren erakunde autonomoek emandako mota bereko laguntzekin edo diru-laguntzekin lotuta abian jarritako edozein itzultze- edo zigor-prozedura.

3.– Agindu honetan araututako diru-laguntzak eskatzeko, erakunde eskatzaileak ezin izango dute izan diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion zehapen penalik zein administrazio-zehapenik, ez eta horretarako legezko inolako debekurik ere, sexu-bereizkeriagatik debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoarekin bat etorriz.

4.– Halaber, ezin izango dira diru-laguntzen onuradun izan Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluko 2. paragrafoan jasotako gorabeheraren batean aurkitzen diren erakundeak. Gorabehera horiek gertatzen diren ala ez erabakitzeko, aintzat hartuko da Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluen 4. paragrafotik 6.era bitartean ezarritakoa, eta gorabehera bakoitzarentzat ezarritako muga izango dute.

4. artikulua.– Eskabideak aurkeztea: tokia, epea eta aurkeztu beharreko agiriak.

1.– 2015eko irailaren 21era arte aurkeztu ahal izango dira eskaerak, egun hori barne.

2.– Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Lurralde Plangintza eta Hirigintza Zuzendaritzan aurkeztu beharko dituzte eskabideak udaletako alkateek edo kontzejuetako ordezkariak (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz). Zuzenean-herritarrentzako zerbitzuko gunetan (informazioa 012 telefonoan edo www.euskadi.eus atariaren bidez) edo sail horretako erregistro orokorrean ere aurkeztu ahal izango dira, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako edozein eratan.

3.– Agiri hauek erantsi beharko zaizkio eskaerari:

a) Ekintza Planaren proiektua.

– Proiektuaren azalpen-memoria, proposamena 2.3 artikuluan zehaztu irizpideetara egokitzen dela dioen justifikazioa barne dela, eta adieraziko da horietako zeini eragiten zaion lehentasunez.

– Ekintza Planaren bidez lortu nahi den paisaia-kalitatearen helburuei buruzko memoria.

– Ekintza Planaren prestaketa-prozesuko parte-hartze eta genero metodologia.

b) Ekintza Plana idazteko egutegia.

c) Ekintza Plana idazteko zerbitzu-sarien aurrekontua.

d) Ziurtagiria, zeinetan agertuko baita bestelako diru-laguntzak, laguntzak edo diru-sarrerak eskatu eta, hala badagokio, lortu direla xede bererako, eta, baldin eta jaso badira, zenbatekoa ere agertu behar da. Bestelako diru-laguntzarik eskatu ez bada edo eman ez bada, halaxe agertu behar da.

e) Erantzukizunpeko aitorpena, zeinetan adieraziko baita erakunde eskatzaileak ez duela diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion zehapen penalik zein administrazio-zehapenik, eta ez duela horretarako legezko inolako debekurik, sexu-bereizkeriagatik debekuak barne, bat etorri Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoarekin eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluan 2. atalean xedatuekin.

5. artikulua.– Laguntzak kudeatzeko organoa.

Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren zuzendariari dagokio agindu honen arabera emandako diru-laguntzak kudeatzea; Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 8. artikuluan 3. atalean ezarritako printzipioei egokitu beharko zaizkie diru-laguntzok.

6. artikulua.– Aurkeztutako eskabideko akatsak zuzentzea.

Aurkeztutako eskabidean, akats edo zehaztasun-erak antzemanaz gero, erakunde eskatzaileari jakinaraziko zaio, eta hamar eguneko epea emango horiek zuzentzeko. Halaber, ohartaraziko zaio, hala egiten ez badu, eskabideari uko egin diola ulertuko dela. Dena den, alde aurretik dagoen ebazpena emango da Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluan xedatuari jarraituz.

7. artikulua.– Balioespen-epaimahaia eta esleipen-irizpideak.

1.– Kide anitzeko ebaluazio-organo bat eratuko da aurkeztutako eskaerak aztertzeko eta ebaluatzeko; honela osatuko da:

a) Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren zuzendaria, lehendakari izango da.

b) Lurralde Antolamenduko eta Plangintzako zerbitzu-zuzendaria.

c) Zuzendaritzako arlo teknikoko ordezkari bat; idazkari jardungo du.

2.– Epaimahaiak bere proposamena igorriko dio Administrazio eta Lurralde Plangintzaren sailburuordeari honako esleipen-irizpide hauen arabera eskabide bakoitza aztertu eta egiaztatu eta gero, zeinek gehieneko puntuazio hau izango baitute:

a) Aurkeztutako Ekintza Plana 2.3 artikuluan ezarritako irizpideei egokitzea – 6 puntu.

Horretarako, lehentasuna izango dute aipatu artikuluan zehazten diren ordena berean:

Gehienez 6 puntu a) irizpidearentzat.

Gehienez 4 puntu b) irizpidearentzat.

Gehienez 2 puntu c) irizpidearentzat.

Gehienez 2 puntu d) irizpidearentzat.

Gehienez 2 puntu e) irizpidearentzat.

b) Ekintza Planaren eta ekintzen bidez lortu beharreko helburuak – 2 puntu.

c) Eragile publiko nahiz pribatuen eta herritarren parte-hartze prozesua diseinatzea – 2 puntu.

3.– Aipatu proposamenak lehentasunak ezarriko ditu diruz lagundu nahi diren eskabideen artean, zehaztutako irizpideetarako aurreko atalean ezarritako puntuazioaren arabera ezarri ere. Honako hauek adierazko ditu: onuradun proposatutako udal edo kontzejua; diruz lagunduko den proiektua, eta proposatutako zenbatekoa –aurrekontu-kreditua amaitu arte–. Halaber, ezetsiko dituen eskabideen zerrenda eta ezesteko arrazoiak ere jasoko ditu.

4.– Ez dira diruz lagunduko balioespen orokorrean 5 puntu baino gutxiago jaso duten eskabideak.

8. artikulua.– Ebazpena, errekursoak, ebazteko eta jakinarazteko epeak, jakinarazteko modua eta publizitate-prozedura.

1.– Balorazio-epaimahaiaren proposamena ikusirik, Administrazio eta Lurralde Plangintzaren sailburuordeak ebazpena emango eta jakinaraziko du, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera hiru hilabeteko epean, gehienez. Balorazio-fasean erdietsitako puntuazioaren arabera esleituko ditu diru-laguntzak ebazpen horrek, handienetik txikienera, harik eta aurrekontu-zuzkidura agortzen den arte; orduan, gainerako eskabideak ezetsiko ditu, eta diru-laguntza jasoko duten udal edo kontzejua, diruz lagundutako proiektuak eta emandako zenbatekoak zein diren adieraziko. Ezetsitako eskabideen kasuan, ukatze horren zergatiak ere adierazi beharko dira. Aipatu ebazpena, jakinarazteko, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Ebazpen horren aurka, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluekin bat etorritik, gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

3.– Gehieneko epea igarota, ebazpenik jakinarazi ez bada, diru-laguntza eskabideak ezetsi zaiela ulertu beharko dute erakunde interesdunek, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1. artikuluan ezarritakoarekin bat.

9. artikulua.– Erakundearen betebeharrak.

Artikulu hauetan xedatutako betebeharrak bete beharko dituzte agindu honetan araututako diru-laguntzen erakunde onuradunek: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 50. artikulua, eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14. artikulua. Zehazki, betebeharrak hauek bete beharko dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Horrela, laguntza onartzen dutela ulertuko da, baldin eta, laguntza eman izanaren jakinarazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hamabost egunera, ez badiote berariaz eta idatziz uko egiten.

b) Eman den xede horretarako erabiltzea diru-laguntza.

c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, beren eginkizunetan dihardutela, eskatutako informazioa ematea deialdi honen karietara jasotako diru-laguntzen inguruan.

d) Organo emaileari jakinaraztea diruz lagundutako jarduera finantzatzeko bestelako diru-laguntzak, laguntzak sarrerak edo baliabideak eskuratu izana.

e) Prestatutako Paisaiaren Ekintza Planak berariaz jakinarazi beharko du agirian berean diru-laguntza publikoak jaso dituela, eta jaso beharko da, halaber, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Plangintza Sailak duela diruz lagundu.

f) 2015eko abenduaren 15a baino lehen aurkeztea 2.2 artikuluan aipatu diagnostiko-agiria eta ordaindutako zerbitzu-sarien egiaztagiria.

10. artikulua.– Diru-laguntzak jasotzeko baldintzak aldatzea.

Baldin eta aldatzen badira diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak, eta, edozein ere, beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuetatik beste diru-laguntza batzuk edo bestelako laguntza batzuk jasotzen badira, edota, kasua bada, helburu bererako beste diru-sarrera zein baliabide batzuk eskuratzen badira, emate-ebazpena aldatu ahal izango da; betiere, diru-laguntzen onuradun izateko arauetan jarritako gutxieneko baldintzak betetzen badira.

11. artikulua.– Emandako laguntzaren zenbatekoa aldatzea.

Baldin eta zerbitzu-sarien behin betiko kostua txikiagoa bada laguntza ematean aurreikusitako aurrekontuan jasotakoa baino, proportzioan murriztuko da emandako diru-laguntzaren zenbatekoa, eta, orduan, diru-laguntzaren ehunekoa oinarri berriaren gainean aplikatuko da.

12. artikulua.– Ez-betetzeak eta laguntza itzultzeko prozedura.

Baldin eta eskatu eta eman zen helbururako erabiltzen ez badu diru-laguntza erakunde onuradunak, diru-laguntza eman zitzaion jarduera burutzen ez badu, diru-laguntza finkaturiko xedeetarako erabili duela justifikatzen ez badu, edo, orokorrean, ez baditu betetzen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, agindu honetan eta diru-laguntza emateko ebazpenean ezarrita dauden betebeharrak, jaso duen diru-kopurua itzuli egin beharko du, baita sortutako legezko interesak ere. Dirua itzultzeko, horretarako ezartzen den prozedurari jarraituko zaio.

13. artikulua.– Diruz lagun daitekeen gehieneko aurrekontua.

Paisaiaren Ekintza Planak idazteko zerbitzu-sarien % 90 lagunduko da diruz, planeko 30.000 euro gehienez, dagoen aurrekontu-kreditua agortu arte, betiere. Baina BEZa edo bestelako zergak ez dira inolaz ere diruz lagunduko.

14. artikulua.– Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Agindu honen bidez deitzen diren diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuek helburu bererako deitutako bestelako diru-laguntza edo laguntza batzuekin eta bestelako sarrera edo baliabide batzuekin; betiere, gainfinantzaketarik eragiten ez badute laguntza horien xede den jarduerarako jasotzen diren laguntzek. Holakorik gertatuz gero, gaidikinari dagokion zenbatekoa gutxituko zaio deialdi honetan emandako laguntzari.

15. artikulua.– Aurrekontu-zuzkidura.

Orotara, 280.000 euro bideratuko dira diru-laguntzak emateko, 15.0.1.09.12.0000.4.722.01.43130.004.L aurrekontu-partidaren kontura: horietatik 84.000 euro 2015. urteari dagozkio, eta 196.000 euro 2016. urteari.

16. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzea.

1.– Bi zatitan ordainduko da kasu bakoitzean emandako diru-laguntza; honela:

– Lehenengo ordainketa, emandako diru-laguntzaren % 30 gehienez, 2.2 artikuluan aipatu diagnostiko-agiria eta ordaindutako zerbitzu-sarien egiaztatzea aurkeztean, eta 2015eko abenduaren 15a baino lehen, betiere.

– Bigarren eta azken ordainketa, onartutako diru-laguntzari dagokion eman gabeko zenbatekoa, diru-laguntza justifikatu eta gero eta 2016ko urriaren 31 baino lehen; horretarako, idatzitako Paisaiaren Ekintza Plana eta ordaindutako zerbitzu-sarien egiaztatzea erantsi beharko dira.

2.– Paperean eta formatu digitalean aurkeztu beharko dira aurreko atalean zehaztutako agiriak.

17. artikulua.– Errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango zaio Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuari, hilabeteko epean, aginduaren jakinarazpena egiten den egunetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 22a.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua,
ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA.